

# FUNTSEZKO BALIABIDEAK

## **Baliabide fisiko eta materialak eta ez-materialak**

Proiektu honen funtsezko baliabideen artean aplikazio digitala dago, proiektuaren oinarria baita. Aplikazio honen bidez Erasmus ikasleek eta etxebizitzaren jabeek elkar aurkitzen dute modu erraz eta azkarrean, bai mugikorraren bidez bai barruko sistemaren bidez. Plataforma seguru eta erraza izan behar da, eta erabiltzaile kopurua handitzen denean ere ondo funtzionatu behar du. Erabiltzaileen datu-baseek ere funtsezko papera betetzen dute, bertan ikasleen, etxebizitzaren eta balorazioen informazioa gordetzen baita, plataformaren funtzionamendu egokia eta erabiltzaileei zerbitzu hobea eskaintzea. Unibertsitateekin sinatutako akordioek aplikazioari sinesgarritasuna ematen diote eta Erasmus ikasleengana iristea errazten dute. Horrez gain, komunitatea eta balorazio-sistema oso baliabide garrantzitsuak dira, ikasleek beste erabiltzaileen esperientziak ikusi eta seguru senti daitezten. Azkenik, marka eta irudi korporatiboak proiektua nazioartean ezagutarazten laguntzen du eta erabiltzaileen konfiantza indartzen du.

## **Baliabide intelektualak**

Proiektuaren barruan, aplikazioaren diseinua eta funtzionalitateen garapena egingo dugu, plataformaren egitura eta erabilera-modua definituz. Horrela, negozio-eredua zehaztuko da, diru-sarrerak nola lortuko diren argitzeko. Know-how teknologikoa garatuko da aplikazioaren mantentzea, segurtasuna eta etengabeko hobekuntzak egiteko, eta marketin- eta komunikazio-estrategia propioa sortuko da proiektua zabaltzeko eta Erasmus ikasleengana iristeko.

## **Giza baliabideak**

Proiektua aurrera eramateko garapen-talde teknikoa funtsezkoa da. Bi programatzaile arduratuko dira aplikazioa sortu, mantendu eta etengabe hobetzeaz. Horrez gain, diseinatzaile grafiko eta aditu batek aplikazioaren irudia eta erabilerraztasuna landuko ditu. Marketin- eta komunikazio-arduradun batek proiektuaren zabalkundea kudeatuko du, eta kudeaketa- eta harreman-arduradun batek unibertsitateekin eta etxebizitzaren jabeekin harremanak koordinatuko ditu.

## **Baliabide finantzarioak**

Proiektuaren finantzaketa bazkideen ekarpenen bidez eta kanpoko finantzaketaren bidez egingo da. Bazkide bakoitzak 5.000 euroko ekarpena egingo du, eta bost

bazkideren artean guztira 25.000 euroko kapital soziala osatuko da. Horrez gain, proiektua martxan jartzeko eta lehen urteko gastuei aurre egiteko 35.000 euroko mailegua eskatuko da. Finantza baliabide hauek aplikazioaren garapenera, marketinera eta etorkizuneko hazkundera bideratuko dira.